

EPAITEGI GORENAK URTEBETEKO KARTZELAREKIN ETA LAU URTEKO INHABILITAZIOAREKIN ZIGORTU ZITUEN

# Espainiako Gobernuak Kepa Urrea torturatu zuten hiru guardia zibilei indultua eman die

■ Gobernu Kontseiluan espetxe zigorra kendu eta guardia zibil izateko inhabilitazioa hilabete eta egun batera jaitsi zien

■ Manuel Sanchez, Jose Maria de las Cuevas eta Antonio Lozanok Kepa Urrea mendira eraman eta jo egin zuten informazioa lortzeko

■ Inhabilitazioa hilabete eta egun batera murriztu dietenez guardia zibil izaten jarraitu ahal izango dute hirurek

Erredakzioa / Donostia

ESPAINIAKO Gobernuak indultua eman zien joan zen ostiralean Kepa Urrea torturatu zuten hiru guardia zibilei. Atzo jakin zenez, Ministro Kontseiluan Epaitegi Gorenak jarri zien urtebeteko espetxe zigorra kendu eta guardia zibil izateko zuten inhabilitazioa hilabete eta egun batera murriztu zuen PPren Gobernuak. Murrizketaren eraginez hiruretako inor ere ez da Guardia Zibiletik kanporatua izango, eta lan horretan jarraitu ahal izango dute aurrerantzean ere.

Bizkaiko Entzutegiak 1997ko azaroaren 7an Manuel Sanchez Corbi, Jose Maria de las Cuevas Carretero eta Antonio Lozano Garcia zigortu zituen Kepa Urrea —ustez ETako kidea— torturatzeagatik. Urrea 1992ko urtarilaren 29an atxilotu zuen Guardia Zibilak. Bizkaiko Entzutegi Probintzialeko epaileek frogatutzat jo zuten hiru guardia zibilak Urrea mendi batera eraman zutela, eta bertan «biluztu, zerbaitekin jo, eta lurrean



XOUSE SIMAL

Kepa Urrea tortura zuten guardia zibilak Bizkaiko Entzutegian epaitu zituzteneko irudia, 1997an.

arrastaka eraman zutela, zer izen zuen eta zuloa non zegoen» galdetzen ziotelarik. Urrea bederatzi egunez ospitaleratu behar izan zuten atxilotetan jasan zituen tratatu txar

ren ondorioz, Amnistiaren Aldeko Batzordeek salatu zuten.

Tortura delitu horregatik lau urteko espetxe zigorra eta sei hilabeteko inhabilita-

zioa ezarri zien 1997an Bizkaiko Entzutegiak. Ministerio Fiskalak, ordea, epaia errekurritu egin zuen, eta auzia Epaitegi Gorenaren eskuetara iritsi zen. Horrek,

Bizkaiko Entzutegiak jarritako zigorra «gehiegizkoa zela-eta», espetxe zigorra urte batera murriztu zuen, nahiz eta epaiak deskribatutakoa gertatu zela onartu. Tortura «Zuzenbide Estatu batean eman daitekeen gertakari larrienetako bat» zela esan zuen sententziaren egile Carlos Granadosek. Gainera, Gorenak onartu zuen, gertakariak aztertuz, elementu guztiek erakusten zutela informazioa lortzeko torturatu zutela.

Hala ere, Ministerio Fiskalak eskatutako murrizketari baietza eman zion Epaitegi Gorenak. Urtebeteko espetxe zigorra gertatukoarekin «proportzionala» zela ondorioztatu zuen Gorenak, eta murriztu egin zuen.

Espetxe zigorra urtebetera jaitsi zieten, Manuel Sanchez Corbi, Jose Maria de las Cuevas Carretero eta Antonio Lozano Garcia guardia zibilak ez ziren azkenean espetxera joan. Orain, gainera, inhabilitazioa sei urtetatik hilabete eta egun batera murriztu dietenez, ez dira Guardia Zibiletik kanporatuak izango.

## erreakzioak

Iñaki Anasagasti • EAJ

### «Mayor Oreja indultuez ari denean Guardia Zibilaz ari da»

► Iñaki Anasagasti EAJren Espainiako Parlamentuko bozeramaileak atzo adierazi zuenez, «Mayor Oreja indultuez ari denean ez da ETaren munduaz ari, Guardia Zibilaz bai-zik». EAJren bozeramaileak «bizi garen Zuzenbide Estatuaren erakustaldi nabarmentzat» jo zuen indultua. Gobernuak «inoiz indultuak izan behar ez zuten guardia zibil torturatzaileak» indultatzen ari dela gaineratu zuen Iñaki Anasagastik.

Jone Goirizelaia • EH

### «Beste kasu batzuetan auzipetuak dauden torturatzaileak indultatzea eskandalua da»

► Euskal Herritarrok taldeko abokatu

eta parlamentario Jone Goirizelaia-arentzako «eskandalu bat da beste kasu batzuetan auzipetuak dauden torturatzaileak indultatzea». Gainera, horrelako delituak egin dituztela frogatuta egonda, «gauza bera egin dezaketen lanpostu batera itzultzea» lotsagarritzat jo zuen Goirizelaia. Azkenik, «indar zapaltzaile hauek guztiek» Euskal Herria uzteko garaia badutela esan zuen.

Koldo Usin • IU-EB

### «Sentsibiltate fina erakusten du, era susmagarrian, gerra zikineko delituekin»

► Arabatik IU-EBko parlamentario Koldo Usinek esan zuenez «PPko Gobernuak sentsibiltate fina erakusten du, era guztiz susmagarrian, gerra zikineko delitu guztiekin edo torturekin». Ekintza horrekin bahiketa eta torturatzeagatik Justizia

Epaitegiek zigortu dituztenen alde dagoela. «Ulertezina da, beste kasu batzuetan Gobernu honek exijitu duen bezala, damutu ez direnei indultuak ematea», esan zuen.

### Amnistiaren Aldeko Batzordeak •

#### «Espainiako Gobernuak tortura bermatu eta bultzaten du»

► Erabakiarekin «Espainiako Gobernuak euskal herritarren aurkako tortura bermatu eta bultzatu» egiten duela diote Amnistiaren Aldeko Batzordeek. Torturak, Espainiako Estatuan, Estatu politika izaera hartzen duela adierazi zuten AABek. Gatazka konpontzeko Gobernuaren axolagabekeria argi geratzen dela salatu zuten. Erabaki berri horrek Zuzenbide Estatuaren zurikeria agerian uzten duela esan zuten AABek, eta «Turkia bezalako Estatu faxiste-

kin» aldekatu zuen Espainiako Estatuak.

### Bakearen Aldeko Koordinakundea •

#### «Iruzur egitea da»

► «Gizarteak bere sistema judizialaren bidez onartzen ez dituen gertakari batzuk erabaki politiko batekin eduki gabe uztea iruzur egitea da», adierazi zuen Bakearen Aldeko Koordinakundek. «Giza eskubideekin eta pertsonen duintasunarekin konpromisoa hartu duen gizartearen nahiaren aurkako jarrerak sarritu egiten direla dirudi», azaldu zuen ohar batean. Azkenik, indultu bat emateko hiru baldintza bete behar direla gogorarazi zuen: «Biolentziari uko egitea, demokraziaren oinarri eta arauak bere egitea, eta egin den mina onartzea», azaldu zuen Bakearen Aldeko Koordinakundek.